AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSASUN SAILA

1896

AGINDUA, 2013ko apirilaren 5ekoa, Osasuneko sailburuarena, Belén Fernández Ríos andrea Osasun Saileko Arabako Lurralde Zuzendaritzako goi-kargudun baten idazkariaren postutik kentzea xedatzeko dena.

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta lege horrek ematen dizkidan eskurantzak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Belén Fernández Rios andrea Osasun Saileko Arabako Lurralde Zuzendaritzako goi-kargudun baten idazkariaren postutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargugabetze horrek 2013ko apirilaren 9tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 5a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.